

Gure enpresan eskainiko dena bezeroentzat erabilgarriak izan daitezkeen apunteak eta klase partikularrak izango direnez, zerbitzu pertsonal bat eskaintzen dugula esan daiteke. Bestalde, leku aldaketei dagokienez, erosotasun handia izango dute klaseak online emango baitira, ondorioz, ez dute lokal edo akademi batera joan beharrik.

Gaur egun, teknologiak guregan hartu duen joera gero eta handiagoa da. Jakin badakigu teknologia areagotuz doala eta abantaila ugari eskaintzen dizkigula. Esan bezala, klaseak online emango dira eta honek, bezeroen demanda handituko duela uste dugu. Egun, ikusi da %67ak baina gehiagok nahiago duela online moduan funtzionatzen duen plataforma baten bidez klaseak eta apunteak jasotzea. Beraz, guk eskaintzen dugun zerbitzu hau, beste inon eskainiko ez denez, bezeroen kopurua handitu egingo zaigulakoaren irudimen osoa daukagu. Besteak beste, nahiz eta klaseak ordenagailu baten pantailaren atzetik eman, gure gertutasun eta berotasuna emango diegu, irakasle-ikasle arteko harremana sutsua izan dadin.